

FUNTSEZKO JARDUERAK

Bezeroekiko harremana oso garrantzitsua izango da. Udan kanpin zerbitzua eskainiko diegu, bertan egingo ditugun ekintza guztiekin barne; neguan, berriz, guk ekintza eta zerbitzuak eskaintzeaz gain, eremuak alokatuko ditugu. Bestalde, egunerokotasunean, bezeroek telefonoz behar duten informazioa izango dute, kanping-ean laguntza emateko prest egongo gara... hau da, gertutasuna sentiarazten saiatuko gara.

EKINTZAK

Funtsezko jarduera gisa, hainbat ekintza egingo ditugu (udako bonoa izanez gero dohainik), gazteak asper ez daitezen, etorkizunerako oroitzapenak sor ditzaten eta jende berria ezagut dezaten:

- Pistinako festak
- Hitzaldiak
- Kontzertuak
- Jolasak



EFIZIENTZIA

Harrera-lekuan, telefono deiak azkar erantzungo dira (betiere dei-orduak errespetatzen badira), bezeroak zai egon ez daitezen.

BEZEROAREKIKO HARREMANA

Langile guztiek errespetuz hitz egingo diete bezeroei eta behar duten guztian lagunduko zaie, hala eskatuz gero. Errespetuzko tratua bera esperoko da bezeroengandik.